



# Urkiola

Parke Naturala Parque Natural

Miguel Loizate

## URKIOLAKO AZTARNATEGIAK

Urkiolako Parke Naturalak historiaurreko aztarnategiak ditu Axlor, Baltzola eta Bolinkoba haizuloetan, besteak beste. Eusko Jaurlaritzak Axlor eta Baltzola monumentu-multzo izendatu zituen 2017an, duten garrantziagatik, horien babesa bermatu nahian.

Axlorreko aztarnategiak (Diman) 50.000 urtetako neandertal taldeen okupazioaren aztarnak gordetzen ditu, eta hau dela eta erreferente bihurtu da Europa mailan. Diziplina anitzeko ikerketa-proiektua garatzen da horren inguruan, Axlor XXI proiektua.

Sedimentu-geruzetan hamar bat giza aztarna aurkitu dira, haur eta gazte helduenak, eta harrizko eta hezurrezko tresna ugari ere bai. E hizatutako animalien milaka hondakin ere berreskuratu dira: oreinak, bisontek, ahuntzak eta zaldiak, besteak beste. Axlorren suaren erabilera oso zaharra nabarmendu da, duela 100.000 urte ingurukoak.

Baltzolak okupazioaren lehen aztarnak ere Neandertalen garaikoak dira, nahiz eta aztarna gehienak berriagoak diren batez ere 11.000 urte ingurukoak, Azil aldikoak.



T. Lazuen



L. Teira



L. Teira

## LOS YACIMIENTOS DE URKIOLA

El Parque Natural de Urkiola contiene yacimientos prehistóricos en las cuevas de Axlor, Baltzola y Bolinkoba, entre otras. Dado su interés y para garantizar su protección, el Gobierno vasco declaró Axlor y Baltzola Conjunto Monumental en 2017.

El yacimiento de Axlor (Dima) conserva restos de ocupaciones de grupos de neandertales a lo largo de más de 50.000 años, lo que le convierte en un referente a nivel europeo. En torno a él se desarrolló un proyecto de investigación multidisciplinar, Proyecto Axlor XXI.

En las capas de sedimento se han recuperado una decena de restos humanos, de niños/as y de jóvenes adultos, además de abundante utillaje de piedra y de hueso. También ha proporcionado miles de restos de los animales cazados, entre los que encontramos ciervos, bisontes, cabras y caballos. En Axlor destaca un intenso uso del fuego desde fases muy antiguas, hace en torno a 100.000 años.

Las primeras ocupaciones de Baltzola se remontan también a la época neandertal, aunque la mayor parte de las evidencias son de períodos más recientes, en particular en torno a unos 11.000 años, durante el Aziliense.

Fotografías: Proyecto Axlor XXI

Argazkiak: Axlor XXI proiektua


PR-BI 41



Baltzola, ibilbide mitologikoa  
Baltzola, senda mitológica



www.bizkaia.eus



TOKI ALAI  
Interpretazio Zentroa  
Centro de Interpretación

94 681 41 55

informazioa eta trackak deskargatu:  
descarga de información y tracks:




(EU)

(ES)

## FITXA TEKNIKOA FICHA TÉCNICA

<b>HASIERA</b>	Olabarri (San Frantzisko)	<b>INICIO</b>
<b>AMAIERA</b>	Olabarri (San Frantzisko)	<b>FIN</b>
<b>LUZERA</b>	7 km	<b>LONGITUD</b>
<b>GEHI. MALDA</b>	382 m	<b>DESNIVEL ACUMULADO</b>
<b>DENBORA (g.g.b.)</b>	2h	<b>TIEMPO ESTIMADO</b>
<b>IBILBIDE MOTA</b>	Zirkularra / Circular	<b>TIPO DE RECORRIDO</b>



Errepidea edo asfaltozko bidea 24% Carretera o camino asfaltado  
Lur-edo hartxintzar-pista 65% Pista de tierra o grava  
Galtzada edo bidezidorra 5% Calzada o senda  
Karsta 6% Karst

Ahozko tradizioak hango leize, ibai eta gailurretan gure mitologiako pertsonaiarik adierazgarrienak kokatzen ditu. Jentilek, lamiek, galtzagorriek eta baita Sugoik eta Marik ere Dimako herritarren arreta bereganatu eta istorio oso bitxiak sortu zituzten. Bideak eremu horretako zati bat zeharkatzeko aukera ematen digu, hango kondairetako batzuk ezagutu bitartean.  
**GOGORATU:** Indusi-San Lorentzo tartea edonork egiteko modukoa da, baina Garaioko mendi eremua malkartsua da, beraz, arretaz ibili.

La tradición oral ubica en las cuevas, ríos y cimas los personajes más representativos de nuestra mitología. Gentiles, lamias, galtzagorri e incluso Sugoí y Mari atrajeron la atención de los habitantes de Dima, dando lugar a las más curiosas historias. Este sendero nos permite recorrer parte de este enclave, mientras nos da a conocer algunas de sus leyendas.  
**RECUERDA:** el tramo Indusi-San Lorentzo es apto para todos los públicos, pero el entorno de Garaio es muy escarpado, camina con precaución.

## Baltzola, ibilbide mitologikoa

**0.km** Olabarri auzoan, Indusin (Dima) San Frantzisko basiliza dago. Ahozko tradizioaren arabera, Baltzola leizean eta haren inguruetan bizi ziren lamiak eta bestelako jeinuak uxatzeko eraiki zen. Bidea basilizatik abiatzen da eta, Indusi ibaia gurutzatu ostean, ezkerretara egiten du. Bideak errearen ibilguarekin paralelo jarraitzen du **Zamakolan**, bidegurutzet berri batekin topo egin arte. Ibilbidearekin jarraitzeko erreka gurutzatu eta Gibeltar baserrirantz igotzen hasi behar gara. Inguruan bizi ziren lamiak maiz joaten omen ziren hara. Egurrezko pasagune txiki bat gainditu ostean erreka iritsi arte jaisten hasiko gara.

**0,9.km** Ibilbidea Jentilzubi azpitik igarotzen da. Kare-harrizko arku natural bitxia da hori eta tradizioaren arabera jentilek eraiki zuten Kobalde amildegia gurutzatu ahal izateko. Bideak bat-batean eskuinetara egiten du puntu horretan eta hortik gutxira, **Axlorreko koba** eta azarnategia ezagutzeko desbiderapena aurkituko dugu. Aldapan gora egin eta gero, **Baltzolako kobetara** eta **Abaroko tunelera** heltzeko sarrerara helduko gara. Esaten dutenez, euskal mitologiako ama jainkosa Mariren bikotea (Sugoi) bertan bizi da. Hau, suge itxurako jeinu bat bezala ezagutzen da. Bide nagusitik koba multzoa gurutzatu eta Garaio mendira joateko bidegurutzera ailegatuko gara; gero bertatik itzuliko gara. Ondoren, Lapikoerreka heltzeko jaitsiera hasten da Baltzola auzora heltzeko igoera hasi arte. **San Lorenzo** basiliza atsedegunearen ondoan dago.

**2,2.km** Gure ibilbideak eskuinetik jarraitzen du, berriz erreka jaisten den pistatik eta Olabarri txabolaraino heldu arte jarraitzen du. Han pista nagusia utziko dugu **Garaio**ko oinarri harritsura heltzeko.

**4,7.km** Gailurrean postontzi txiki bat eta Baltzolako amabirjinaren irudia daude. Erraz askatzen den kareharriaren artean jaisten hasiko gara, pinudi baten ertzerira iritsi arte. Hau gurutzatu eta **Kobaganako** hegala inguratzen duen pista iritsiko gara berriz.

**7.km** Oraingoan ezkerretara egin eta **Indusi** auzorantz jaitsiko gara, igoerako bide beretik.



**2** Arriku faktore bat baina gehiago dago  
*Hay más de un factor de riesgo*



**2** Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak  
*Sendas o señalización que indica la continuidad*



**3** Koskadun bidezidor edo zoru irregularreko ibilaldia  
*Marcha por sendas escalonadas o terrenos irregulares*



**2** Ordu 1etik 3ra bitarteko ibilaldia gelditu gabe  
*De 1 a 3 horas de marcha efectiva*



## Baltzola, senda mitológica

**km 0** En el barrio de Olabarri en Indusi (Dima) se encuentra la ermita de **San Francisco**, según la tradición oral, construida para ahuyentar a las lamias y otros genios que habitaban en la cueva de Baltzola y sus alrededores. El sendero parte de la ermita para, tras cruzar el río Indusi, girar a la izquierda. Seguidamente continúa en paralelo al curso de agua hasta alcanzar un nuevo cruce de caminos en **Zamakola**. Para seguir el itinerario hay que cruzar el río y comenzar el ascenso hacia el caserío Gibeltar, frecuentemente visitado por las lamias que habitaban en la zona. Tras superar un pequeño paso de madera comenzamos a descender hasta alcanzar el arroyo.

**km 0,9** El itinerario pasa bajo **Jentilzubi**, un curioso arco natural de piedra caliza que según la tradición construyeron los gentiles (jentilak) para cruzar el barranco de Kobalde. La pista realiza un giro brusco a la derecha y al poco, encontramos el desvío que nos permite visitar la cueva y yacimiento de **Axlor**. Tras otro moderado ascenso, llegamos a la derivación que nos da acceso a la **Cueva de Baltzola** y el **Tunel de Abaro**. Según la tradición oral, en estas cuevas mora Sugoi, un genio con forma de serpiente conocido por ser el marido de Mari, la diosa madre de la mitología vasca. De vuelta en el sendero principal bordeamos el complejo de cuevas hasta alcanzar la bifurcación que va al monte Garaio, por la que luego volveremos. Después comienza un suave descenso hasta alcanzar el arroyo de Lapikoerreka, para seguidamente ascender hasta el barrio de Baltzola. La ermita de **San Lorenzo** está junto al área recreativa.

**km 2,2** Nuestro recorrido sigue por la derecha, por una pista que desciende nuevamente al arroyo y continúa hasta la txabola de Olabarri, donde la abandonamos para alcanzar la base rocosa de **Garaio**.

**km 4,6** Un pequeño buzón y la imagen de la virgen de Baltzola coronan la cima. Comenzamos el descenso entre caliza suelta hasta el límite de un pinar. Lo cruzaremos para alcanzar, nuevamente, la pista que bordeaba la ladera de **Kobagana**.

**km 7** Giramos a la izquierda para descender hacia el barrio de **Indusi** por el mismo camino utilizado en la subida.

### BISITA AUTOGITATUA

IBILBIDE MITOLOGIKOAN zehar, 2 QR kode eskaneatu ahal izango dituzu, beste hainbeste puntu estrategikotan kokatuak, BALTZOLAREN inguruak ezkutatzeko dituen etnografia, paisaia, aztarna arkeologikoak eta izaki mitologikoak ezagutzen lagunduko dizutenak.

### VISITA AUTOGUIADA

A lo largo de la SENDA MITOLÓGICA podrás escanear 12 códigos QR situados en otros tantos puntos estratégicos, que te ayudarán a conocer la etnografía, el paisaje, los restos arqueológicos y los seres mitológicos que esconde el entorno de BALTZOLA.

### IBILBIDE LABURREN MARKAK SIMBOLOGÍA PR



Ziderraren jarraipena  
Continuidad del sendero



Norabide aldaketa  
Cambio de dirección



Okerreko norabidea  
Dirección equivocada




KONTUZ!  
¡CUIDADO!




- Kobazuloen inguruan hainbat bidezidor daude, baina kontuz, gure ibilbidetik kanpo daude, zorua irristagarria da eta horiek hartuz gero arretaz ibili.
- Baltzolako kobazuloa zeharkatuko baduzu frontala edo linterna eramatea gomendatzen dizugu.
- Ingurune hauskor batean zaude, errespetuz jokatu!

- Alrededor de las cuevas existen numerosos senderos, pero recuerda, se encuentran fuera del itinerario y el firme es resbaladizo, extrema la precaución.
- Si vas a atravesar la cueva de Baltzola es aconsejable el uso de frontal o linterna.
- Te encuentras en un entorno sensible, ¡respétalo!



Jentilzubi



San Frantzisko  
San Francisco



Baltzolako kobazuloa  
Cueva de Baltzola



Baltzola Garaiotik  
Baltzola desde Garaio